

GALARRENA

1912-2012

GALERNA



Kantabria-ko Itxas-Gizonai Oroipen bat

1

Nere biyotz gaixua
eskaka ari zat,
bertso bi ipintzeko
baldin baderitzat,
Abuztuen amabiyen
sortu zan ekaitzak
egin dizkigu oso
deskalabru gaitzak,
makiña bat persona
ondatu du beintzat.

2

Penak esplikatzera
orain naiz abiyen,
motibua dan gisan
mintzatu nadiyan,
milla bederatzireun
eta amabiyen,
gañera Abuztuko
illaren erdiyan,
desgrazi au pasa da
kosta Kantabriyan.

3

Kulpa gabeko franko
badu eramana,
bakoitzai errezatu
Aita-gure bana,
ain da negargarriya
egin digun lana,
anparo gabe utzi
ainbeste aur ta ama,
sinisten ere gaitz da
aurten pasa dana.

4

Abuztuko illaren
amairugarrena,
guretzat argitu dan
egunik barrena,
izan zagun kupira
denak alkarrena,
gogoratu utsarekin
lertzen zait barrena,
au da paraderua
Kantabritarrena.

5

Eun da amaseikua
Bermeo bakarra,
aurten ez dute izan
suerte ederra,
erri txiki batentzat
oi ori negarra,
aurrak aita falta du
ta amak senarra,
badaukate anparo
on baten bearra.

6

Itxasua zitzaigun
asarretzen asi,
bendabal aldetik zan
aizia nagusi,
nork bere puestuari
ezin ziyon eutsi,
danak zatitu ditu,
iñor ez du utzi,
Gipuzkuan bertatik
ez da falta gutxi.

7

Eun da berrogei ta iru
omen dira danak,
arrantzaliematik
ondatu diranak,
gure Jaungoikuari
kontua emanak,
guk egin bear degu,
bizirik geranak,
ayetaz erregutu
biyotza duanak.

8

"Aita San Inaziyo"
belako barkua,
amairu gizonekin
ur-pian sartua,
beraren imajiña
an zuen santua,
Habana-ko partian
dago kostatua,
tenpestade gaixtuak
jo ta puskatua.

9

Egur biren gañian
gizon bat jarriya,
ai, zer ote zan aren
orduko larriya!
lagunak bera jun ta
estadu urriya,
ez da Donostiyara
errez etorriya,
ikus du birian
ixtillu gorriya.

10

Señale ibilli dala
arraixku aundiyan,
arrai txarra besterik
ez dan tokiyetan,
illaren amabostan
goizeko seyetan
baporiak artu zun
beraren deyetan,
naikua sufritu du
paraje oyetan.

11

Izena Daniel du
nombria Eskurtza:
jeniyoz bizikua,
espirtu utsa,
ta baliatu zayo
Jaunaren laguntza,
oso maltratatu
sartu zan onuntza,
berrez egon liteke
juan gabe aruntza.

12

Iñork galdetzen badu:
gauz ori nola da?
nik erantzungo diyot:
eglyaz onla da,
iñor dudan badago,
betor eskolara,
anuntziyatu zuen
orduko bolara,
graziyak milla bider,
Aita Orkolaga.

13

Ai gure biyotzeko
Aita Orkolaga,
beraren eskutikan
ez gaitzala laga,
orain bezela zaitu
eguna ta gaba,
berrez itxaso ortan
ez gaitezen traba,
bedorren talentua
gauza bialra da.

14

Jainkoa portatzen da
danentzat onradu,
gaitzuentzat igual,
ain biyotz ona du,
emanaz irabazten
degun ainbat gradu,
itxaso sagradua
ur guziyen buru,
ark ere gurutzia
errespetatu du.

15

Jesus maitiak eman
dezala argiya,
oraingo bolara ontan
badago premiya,
euskaldunen artian
au da pikardiya,
Bermeotik galdu da
jendien erdiya,
lutoz jantziya dago
kosta Kantabriya.

16

Ango itxas-kolpiak
ta urro-borroyak
tragatu nai zituen
mendi ta erriyak,
pasa dira desgrazi
ikaragarriyak,
orra amasei bertso
oraingo berriyak,
Fermin Imazek eta
Txirritak jarriyak.

Izan zirelako gara eta garelako izango dira

100 urte beteko dira hondamendi batek Bermeo astindu ebanetik. 1912ko abuztuaren 12an gabaz gertatu zan eta 143 arrantzalek euren bizia galdu eben. Honeetatik 116, bermeotarrak ziren eta honeen eta euren familien oroitzapenean murgilduta gabiltz.

Itsasoak asko emon deusku baina kendu ere bai. XX. mendeko lan istripu larriena 1912ko galerna izan da. Bermeoko biztanleriaren ehuneko bata galdu zan eta 74 emakume alargun eta 225 umezurtz gelditu ziren.

Gertatutakoak aldaketa sozial ugari ekarri ebazan. Alde batetik, biktimen familiak pobrezia larrian erortzeko arriskuak jendartearen solidaritate eta laguntzeko ekimen ugari sortu ebazan. Bestetik, arrantzaleen bizimodu gogorraz eta lan baldintzataz hitzegiten hasi zan. Eta azkenik, hondamendi honeen eragina gitxitzeko eztabaida tekniko eta sozialak areagotu ziran metereologia, ontzigintza, salbamendua edota portuetako azpiegiturei buruz, besteak beste.

Galdutako arrantzaleei eta euren familiari Bermeoko herriak omenaldi berezi bat egin nahi izan deusie mendeurren honetan eta era berean, gure herriko historia eta kultura ezagutzeko eta transmititzeko aukera izango dogu.

Beste barik, eskerrik asko bihotzez, babesle eta laguntzaile guztiei, omenaldi hunkigarri honetan parte izateagatik. Zuon laguntza barik hau guztia posible egitea ezinezkoa izango zan.

IDURRE BIDEGUREN GABANTXO
Bermeoko Alkatea - Alcaldesa de Bermeo

ATUNETEA


ATUNA

Atuna edo Hegaluzea (*Thunnus alalunga*) ur tropikal guztietan ezezik, ozeano epeletan eta Mediterraneoan be agertzen jaku.

140 zm-rainoko luzerea eta 60 kilorainoko pisua hartu leike. Zimarroiak baino hego luzeagoak daukaz.

Atuna Azores isletako hurreko uretan bizi da neguan, eta udabarriaren amaieran (maiatza edo ekaina) hasten da Bizkaiko Golkorantz hurreratzeko. Migrazio honek irauten dabean bitartean hasten da atunaren kanpaina edo kosterea, zein irailan edo amaitzen da.

Txalupa batzuk ekainaren hasieran joaten ziran Asturias aldera (Candás-era) atunari bere migrazioan itxaroten.



Atunaren migrazioa
Migración del Bonito del Norte



Atuna edo Hegaluzea
Bonito del Norte o Albacora

EL BONITO

El atún blanco o bonito del norte (*Thunnus alalunga*), se encuentra en todas las aguas tropicales y en los océanos templados, y en el Mediterráneo.

Puede tener una longitud de hasta 140 cm y pesos de hasta 60 kg. Posee una aleta pectoral más grande que la del atún.

El bonito del norte vive durante el invierno en las aguas próximas a las Azores y de desplaza a finales de la primavera (mayo o junio) al Mar Cantábrico. Es durante estas migraciones cuando se inicia la campaña del bonito, llamada costera, que acaba generalmente en septiembre.

Algunas lanchas boniteras partían hacia Asturias (a Candás) a comienzos de Junio, esperando al bonito en su migración.



Txalupa bizkaitarrak Candás-eko portuan
Lanchas vizcainas en el puerto de Candás

ATUNETEA

Arrantzea kazen teknika erabiliz egiten zan. Horretarako txalupearen manda bietatik botabera luze batzuk zabaldu eta honeetatik aparioak luzatuten ziran. Honeek artalastoz estaliriko amu bakar edo bikoitzak ziran, eta kolorezko ehun edo lana zati bat imintzen jaken arrainaren itxura emoteko.

Txalupeak hainbat apario erooten ebazan atzetik, amudeei bizia emoteko eta atunak engainauteko beharrezkoa zan abiadura moderatuan.

Kosteran, txalupak talde edo konpainietan antolatzen ziran. Konpainiako txalupen eguneko harrapaketak taldeko txalupa edo bapore batek hartu eta erooten ebazan portura.



Txalupa baten atunetarako aparioen antolamendua
Disposición de los aparejos boniteros de una lancha

LA PESCA DEL BONITO

La pesca se realizaba empleando la técnica de la cacea. Para ello, se desplegaban por ambas bandas de la lancha largas pértigas por las que se extendían los aparejos. Estos consistían en un anzuelo, simple o doble, cubierto con hojas de maíz y decorado con un pedazo de tela o lana de color, imitando un pez.

La lancha lleva a la zaga numerosos aparejos a una velocidad moderada, necesaria para animar los anzuelos y enganar a los túnidos.

Durante la costera las lanchas se organizaban en grupos o compañías. Las capturas diarias de todas las lanchas de una compañía eran cargadas y llevadas a tierra por una de las chalupas o vapores del grupo.

Baporak agertu zirenetik hasi ziran atun-txalupen konpainietan parte hartzen

Desde que aparecieron los vapores, empezaron a formar parte de las compañías de lanchas boniteras



Asturiaseko aurre-kosterearen albisteak (1902)

Noticia sobre la precostera en Asturias (1902)

ATUN-TXALUPAK

Gure arrantzaleak erabiltzen ebezanen arteko txalupa motarik handienak ziran. Bere luzerea 13-15 metrokoa zan, zabalerea 3 bat metrokoa, eta puntala metro bat baino gehitxoagokoa.

1878ko Zapatu Gureneko Galarrena danik kubertaz hornituak izaten joan ziran, segurtasunean irabaziz.

Aparioa palo bikoa zan, trinketa eta nagusia, bakoitza beran pikodun beleagaz. Eguraldi txarretarako bela txikiagoak erabiltzen ziran, serberanoa eta burriketa.

Portuko sarrera-urteerako maniobrak, baita arrantza lanen batzuk be, erramuz egiten ziran.

Gobernu aparatua lema desmontagarri bat zan laukizuzendun paladuna.

Propultsino mekanikoaren eraginez, beladun ontziak desagertzen joan ziran gure portuetatik baporetatik ordezkatuak izanik. Baina Santa Klara gaueko Galarrenak arindu egin eban prozesua eta bela-arroaren amaiera markatu eban.



Bermeon eginiko azken txalupea, "San Francisco", 1917koa

La última lancha construida en Bermeo, "San Francisco", de 1917

"Campania" txalupea, 1912ko Galarrenean desagertua

Lancha "Campania", desaparecida en la Galerna de 1912



LANCHAS BONITERAS

Era la lancha de mayor tamaño de las usadas por nuestros pescadores. Tenían de 13 a 15 metros de eslora, unos 3 metros de manga, y algo más de 1 metro de puntal.

A partir de la Galerna del Sábado de Gloria de 1878, fueron siendo dotadas de cubierta, lo que aumentaba su seguridad.

El aparejo constaba de dos palos, trinquete y mayor, con sus correspondientes velas al tercio. Para los tiempos duros se empleaban velas menores, el tallavientos y el borriquete.

Las maniobras de entrada-salida de puerto, así como algunas faenas de pesca, se realizaban a remo.

El aparato de gobierno era un timón desmontable de pala rectangular.

Con la generalización de la propulsión mecánica, los veleros fueron desapareciendo de nuestros puertos sustituidos por vapores. La Galerna de la Noche de Santa Clara aceleró todo el proceso y marcó el fin de la era de la vela.



Txalupa bat itsasoan
Lancha en la mar

TXALUPAK

Leketioko atun-txalupea

Lancha bonitera de Leketio



Aro baten amaierara: Leketioko "Kalbario Mendi" txalupea

El final de una época: Lancha "Kalbario Mendi" de Leketio



Atun-txalupak Ondarroako portuan

Lanchas boniteras en el puerto de Ondarroa



Hiru txaluparen uretaratzearen albistea Bermeon 1902an

Noticia de la botadura de tres boniteras en Bermeo en 1902

El jueves fueron botadas tres hermosas lanchas boniteras de cubierta, contruidas en los astilleros de la localidad.

Entre las muchas personas que presenciaron la botadura, vimos algunos para el constructor por lo admirablemente terminadas que se hallan las embarcaciones y recogimos también frases de aprobación entre la gente marinera.

Dios quiera que la temporada de junio a cuya pesca serán dedicadas las nuevas lanchas, sea fructifera para sus dueños y para cuantos a dicha pesca se dedican.



1902. ONDARROA. - Desfile del grupo

© Museo del Barrio de la Ribera

Marinel ondarrutarrak txalupako belak prestatzen

Marineros ondarrones preparando las velas de la lancha

"Victoria" txalupea Bermeoko portuan, galarrena lgaro ostean erreskatatua tripulazio guztia galdu ondoren

La lancha "Victoria" en el puerto de Bermeo, rescatada tras la galema habiendo perdido a toda su tripulación



Jatordua kuberta ganean erbesteko porturen baten

Rancho en cubierta de una lancha en puerto foráneo

Txalupe bermeotarra atrakaten

Lancha bermeana atracando



GALARRENAK



Juan Migel Orkolaga, "Zarautzeko Bikarioa"

Juan Miguel Orkolaga, "el Vicario de Zarautz"



Igeldoko lehen obserbatorioa

Primer observatorio de Igeldo



Igeldoko gaurko obserbatorioa

Actual observatorio de Igeldo

1878ko apirilaren 20ko galarrena ("La Ilustración Española y Americana")

La galerna del 20 de Abril de 1878 ("La Ilustración Española y Americana")



GALARRENEN IRAGARPENA: ZARAUTZKO BIKARIOA

Juan Migel Orkolaga Legarra Hernanin jaio zan 1863an. Txikitatik interes handia agertu eban astronomia eta fenomeno meteorologikoekaitik, eta bere herri-arloko eguraldiaren iragarpenak egiten hasi zan. Abade ordenau zan eta 1893an Zarautzeko parrokiaren kargu hartu eban.

Fama handia hartzen hasi zan 1900eko zemendiaren 15ean euskal kostaldea astindu eban denboralearen iragarpen zuzena egin eta Kantauriko arrantza-flotearen hondamena ekidin ebalako. Ordua danik, bere eritxiak eten barik izaten ziren eskatuak edozein herriko arrantzaleengandik.

Bere ahaleginei esker, 1902an, Igeldo mendian begiratoki umil bat zabaldu zan, zein 1905ean Itsas-Meteorologia Begiratokiagaitik ordezkaturia izan zan.

Aita Orkolaga, "Zarautzeko Bikarioa", 1914ko irailaren 22an hil zan.

ZORIGOGORREKO GALARREN BATZUK

Belazko enbarkazinoen aroan, galarrenak, sarri askotan, bere giza-bizitzaren bere ordaina hartzen eben gure kostaldeko arrantzaleen artean.

Bereziki larria izan zan 1878ko apirilaren 20ko galarrena, Zapatu Gureneko galarrena lez hiskiro ezagutua. 322 arrantzale galdu ziran, 132 kantabriarrak eta 190 euskaldun (85 bermeotar, 49 elantxobetar, 15 mundakar...), eta Kantauri osoan eragin zan bihotz-ikara oso garrantzitsua izan zan.

Harrezkero, hobekuntzak sartuko ziran nabigazioan (kubertak, eguraldi-iragarpenak, naufragoen salbamentua...) Hala ta guztiz be hurrengorik hurrengo galarrenetan barriro jazo ziran heriotzak. Beste galarren garrantzitsuak 1912koa eta 1961koa (83 biktima) izan ziran besteak beste.



Galarrena Zarautzen
Galerna en Zarautz

PREDICCIÓN DE LAS GALERNAS: EL VICARIO DE ZARAUZ

Juan Miguel Orcólagu Legarra nació en Hernani, en 1863. Desde pequeño se interesó por la astronomía y los fenómenos meteorológicos, y comenzó a hacer pequeñas predicciones del tiempo en su ámbito local. Se ordenó sacerdote, haciéndose cargo de la parroquia de Zarauz en 1893.

Comenzó a ganar popularidad a raíz de la predicción acertada que hizo sobre el temporal que azotó las costas vascas el 15 de noviembre de 1900, evitando una catástrofe entre la flota pesquera del Cantábrico. Desde entonces sus opiniones eran continuamente requeridas por los pescadores de cualquier población.

Gracias a su empeño, en 1902 se abrió un modesto observatorio en el Monte Igeldo, sustituido por el Observatorio Meteorológico Marítimo en 1905.

El Padre Orcólagu, "el Vicario de Zarauz", falleció el 22 de septiembre de 1914.

GALERNAS TRÁGICAS

En la época de la pesca a vela, las galernas se cobraban, con mucha frecuencia, su tributo de vidas humanas entre los pescadores de nuestro litoral.

Especialmente trágica fue la galerna del 20 de abril de 1878, tristemente conocida como Galerna del Sábado de Gloria. Perderían la vida 322 pescadores, 132 cántabros y 190 vascos (85 de Bermeo, 15 de Mundaka, 49 de Elantxobe...) y la conmoción provocada en el Cantábrico sería muy importante.

Desde entonces se introducirían mejoras en la navegación (cubierta corrida, partes meteorológicos, salvamento de naufragos...) Aun con todo ello, en las sucesivas galernas se siguieron produciendo víctimas. Importantes fueron también la de 1912, o la de 1961 (83 víctimas) entre otras.

GALARRENAK

Kantauriko kostaldeko fenomeno tipikoak dira, eta haizearen norabidea eta abiadura nabarmen aldatuz aurkezten dira, gehienetan udan, bero eta hezetasun handiz.

Galarrenak tenperatura altudun (30º-ren bat eguerdi aurrean) goiz baten ostean agertzen dira, kalma-zuri edo hego haize gozo edo boladakakoekez.

Galarren-aldian, hezetasuna eta presio atmosferikoa hasi egiten dira NW-ko haize gogorrek altxatuz

(80 Km/o batzaz-beste), enbarkazino txikientzat guztiz arriskutsua dan itsas-handia sortuz. Tenperatura 12º-raino ahal da jauzi denpora laburrean, eta behe-lainoak agertzen dira.

Fenomeno honen arriskua ez da haizearen indarra bera, bira egin eta handitzen dan arintasuna baino. Galarrena igaro eta gero, baldintza meteorologikoak lehengora datoz.

Galarren mota bi dagoz:

Galarren tipikoak

Oso arriskutsuak dira behingoan agertzen direlako.

Bagiletik irailera sortzen dira, eta gehienetan garagarrila eta abuztuan, ia beti arratsaldean eta inoiz gauez.

Ez dira sortu diren unetik asago joaten, itsasotik hurre dagoen itsasertzeko guneari eragiten deuselarik. Ez dabe ekatxik sortzen.

Afrontuko galarrenak

Afrontua igarotzean sortzen diralako oso indartsuak dira, eta euriz eta ekatxez lagunduta doaz.

Apiriletik urrira arte sortzen dira, eta gehienetan garagarrila eta abuztuan, edozein momentutan, baina ia beti arratsalde edo gauez.

Kantauriko mendebaldean sortzen dira, W-tik E-rantz zeharkatuz, eta zenbat eta E-rago joan areagotu egiten dira.

Itsaso zabaleko zein lehorreko guneei eragiten deusto.



"Bizkaia" zubia galarrenapean

El puente "Bizkaia" bajo la galerna

LAS GALERNAS

Estos fenómenos son muy típicos en el Cantábrico y se presentan como un cambio brusco en la dirección y velocidad del viento, normalmente en el verano, con gran calor y humedad.

Las galernas aparecen tras una mañana con altas temperaturas (sobre 30º antes del mediodía) y con calmas o vientos del sur suaves y racheados.

Durante la galerna, la humedad y la presión atmosférica aumentan levantándose fuertes vientos del NW (medias de 80 km/h), que producen fuerte marejada, peligrosa para pequeñas embarcaciones. La temperatura puede caer hasta 12º en un intervalo corto, y aparecen nubes bajas.

Lo peligroso del fenómeno no es tanto la fuerza del viento como la rapidez con que gira y arrecia. Tras la galerna se restablecen las condiciones meteorológicas anteriores.

Hay dos tipos de galernas:

Galernas típicas

Son muy peligrosas porque aparecen bruscamente.

Se producen de Junio a Septiembre, con más frecuencia en Julio y Agosto, casi siempre por la tarde y raramente por la noche.

No se desplazan mucho del punto donde se originaron, afectando sólo a la zona costera cerca del mar. No suelen producir tormentas.

Galernas frontales

Son muy intensas porque se producen al paso de un frente, y van acompañadas de lluvias y tormentas.

Se producen de abril a octubre, con más frecuencia en julio y agosto, en cualquier momento con mayor riesgo a la tarde o noche.

Se producen en el Cantábrico occidental atravesándolo de W a E, agudizándose cuanto más al Este se desplacen.

Afectan también a zonas de mar abierto y tierra adentro.

